

BALIO PROPOSAMENA

Gure ideiak, berogailudun txamarren alokairuak, zenbait behar edo arazo konpondu eta onura asko ekartzen ditu. Temperatura hotzekin lan egiten dutenentzat edo haien egunerokoan hotza pasatzen duten pertsonentzat pentsatua dago. Gure negozioa zerbitzu batean oinarrituko da. Txamarrak erosi eta beste enpresa batzuei alokatuko dizkiegu.

Txamarra hauei esker, langileek ez dute hotzik pasako. Ondorioz, arreta gehiago jarriko dute euren lanean eta produktibitatea nabarmen handituko da. Gainera, langileak gusturago egingo dute euren lana, enpresari eta langileen lana hobetuz.

Enpresa hauek ez dute txamarra termikoak erosteko arriskurik hartu behar izango. Bestalde, txamarren mantenuaz ere ez lukete arduratu beharko eta hondatzen badira gure ardura izango litzateke hauek konpontzea.

Hasiera batean, gure ikastolan bakarrik alokatzea zen gure intentzioa. Baina merkatu ikerketa bat egin ondoren, pentsatuta genuen negozio ideia ez zela errentagarria konturatu ginen. Ondorioz, beste merkatu ikerketa bat eginez, produktu izoztuen sektorean aukera izango genuela ikusi genuen gure proiektua aurrera eramateko. Produktu izoztuekin lan egiten duten enpresei haien langileentzat gure berogailudun txamarrsk alokatuz.

Horretaz gain, jendea guregana hurbiltzeko, irabazien %10 minbiziaren ikerketan laguntzeko emango ditugu, horrela, interes handiagoa lortuko dugu bezeroen artean.